



# Premios **Aprendizaje & Servicio**

## **2025 ko Ikaskuntza-Zerbitzua Sariak**

PROIEKTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK



Con la colaboración del



# Proiektuak aurkezteko oinarriak

Espainiako Ikaskuntza-Zerbitzua Sareak eta Educok, Hezkuntza, Kirol eta Lanbide Heziketako Ministerioaren laguntzarekin, **2025ko Ikaskuntza-Zerbitzua Sarietan** parte hartzeko dei egiten die Espainiako Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxeei nahiz gizarte-erakundeei.

## Sarien helburuak

1. Haur eta gazteen ikaskuntza eta komunitatearen bizi-kalitatea hobetzeko ekintza solidarioak uztartzen dituzten **ikastetxeen eta gizarte-erakundeen** lana aitortzea.
2. **Haurrek eta gazteek**, bereziki ingurunean aldaketa positiboak eragiteko aukera gutxiago dituztenek, herritar aktibo bihurtzeko duten gaitasuna onartzea.
3. **Ikaskuntza-zerbitzuko jarduerak** hezkuntza arrakastatsurako eta konpromiso sozialerako tresnak direla aitortzea, eta horien zabalkundea sustatzea
4. Gizarte-justizian eta giza eskubideetan oinarritutako **kultura parte-hartzailea, solidarioa eta konpromiso zibikokoa** indartzea eta zabaltzea gizartean.

## Ezaugarriak eta eskakizunak

### 1. Nork hartu ahal izango du parte?

Espainiako **ikastetxe** guztiek (publikoak, itunduak edo pribatuak izan), 2025ko Ikaskuntza-Zerbitzua Sarien deialdian parte hartu ahal izango dute, bai eta Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, DBHn, Batxilergoan eta Lanbide Heziketa<sup>1</sup> dauden Espainiako titulartasuneko ikastetxeek eta zerbitzu-praktikak egiten ari diren Hezkuntza Bereziko ikastetxeek ere.

Halaber, **gizarte-erakundeek** ere hartu ahal izango dute parte (gazteen mugimenduak eta elkarteak, astialdirako elkarteak, eskauten elkarteak, boluntarioen elkarteak, ingurumeneko elkarteak, kulturalak...), baldin eta edozein autonomia-erkidegotan ikaskuntza-zerbitzuko jarduerak garatzen badituzte.

Ikastetxeek eta parte hartzen duten gizarte-erakundeek indarrean dauden legeak errespetatu behar dituzte, eta, bereziki, haurrak babesteko neurriei buruzko guztia.

Sariak hezkuntza-sektore ez-unibertsitarioentzat direnez, instituzio unibertsitarioek ezin izango dute ikasle unibertsitarioak protagonista dituen proiekturik aurkeztu, baina parte hartu ahal izango dute deialdian aurkeztutako ikastetxeen edo gizarte-erakundeen laguntzaile gisa.

---

<sup>1</sup> Kontzeptuak honako hauek biltzen ditu: Oinarritzko Lanbide Heziketa; Erdi eta Goi mailako heziketa Zikloak; heziketa egokitua edo berezia eta premia bereziak dituzten ikasleen zereginen ikaskuntza; ikasketa arristiko eta musikalak, helduen hezkuntza eta enplegurako formazioa.

Administrazio publikoak ere kanpoan geratzen dira, baina ikastetxeen edo aurkezten diren gizarte-erakundeen erakunde laguntzaile gisa aurkez daitezke

Ezinbestekoa izango da deialdian aurkezten den proiektuak **instituzioko** (ikastetxeko edo gizarte-erakundeko) **zuzendaritzaren abala edukitzea** eta ez bakarrik proiektuko arduradunarena.

Ikastetxe edo gizarte-erakunde bakoitzak **nahi adina proiektu** aurkez ditzake, oinarrien arabera badira.

## 2. Nolako proiektuak aurkez daitezke?

Deialdi honetan ondoz ondoko bi ikasturteko proiektuak onartuko dira:

**2023-2024 ikasturtean burutu** diren ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak, iazko deialdira aurkeztutakoak izanda ere.

**2024-2025 ikasturtean** burutu diren ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak.

Ez da onartuko aurreko esperientziarik edo oraindik praktikan zehaztu gabeko proiekturik.

Aurreko deialdietan saritutako ikastetxeek eta gizarte-erakundeek ezin dute proiektu bera berriro aurkeztu, **baina beste batzuk aurkez ditzakete**.

Aurreko deialdietan finalistak izan ziren ikastetxeek eta gizarte-erakundeek **proiektu bera aurkez dezakete berriro**, betiere 2023-2024 edo 2024-2025 ikasturteetan egin bada.

Aurkezten den ikaskuntza-zerbitzuko proiektua bi eredu hauetako batekin identifikatu behar da:

- **A eredu:** **ikaskuntza-zerbitzuko proiektu zehatz bat**, adin-talde edo kolektibo jakin bateko edo ikastetxe edo gizarte-erakunde osoko haurrak edo gazteak protagonista dituen.
- **B eredu:** **ikaskuntza-zerbitzua** ikastetxearen edo gizarte-erakundearen **proiektu globalaren izaera-ikurra den eredu**.

Honako honi deritzogu **ikaskuntza-zerbitzua**:

*Hezkuntza-proposamen honek ikaskuntzako eta komunitatearentzako zerbitzuko prozesuak bateratzen ditu ondo egituratutako proiektu bakar batean. Proiektu horretan, parte-hartzaile guztiek ingurune benetako premietan lan egiten ikasiko dute, hura hobetzeko asmoz.*

## 3. Nola aurkeztu behar da proiektua?

Proiektuak **formatu digitalean** eta estatuko **edozein hizkuntza ofizialetan** aurkeztuko dira honako hauen bidez:

1. Izena emateko **formularioa bete**. Online eskuragarri: [www.aprendizajeservicio.com](http://www.aprendizajeservicio.com)

2. Formulario horri erantsiko zaio proiektuaren **deskribapen-dokumentua** (1. eta 2. Eranskinak ikusi). Luzera-mugak:
  - A eredia: ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak. Gehienez, 7500 hitz eta 15 orrialde.
  - B eredia: ikaskuntza-zerbitzua proiektu globalean sartuko duten ikastetxe edo gizarte-erakundeak. Gehienez, 7500 hitz eta 15 orrialde.
3. Deskribapen-dokumentuan esperientziari buruzko **bideo** baterako esteka jarriko da. (eranskinak ikusi).
4. Aurkezten den proiektuaren kalitate oneko argazki esanguratsu bat bidali behar da. Fitxategia inskripzio-formularioan igo behar da.

Ez dira proiektuak onartuko, baldin eta adierazitako tamaina baino handiagoak badira edo 1. eta 2. eranskinetan zehaztutako osagairen bat ez badute.

#### **4. Nora eta noiz bidali behar da proiektua?**

Deialdian parte hartzeko, online izena emateko formularioa eta deskribapen dokumentua (bideoaren linka duena) aurkeztu beharko dira **2025ko irailaren 30a baino lehen**, Ikaskuntza-Zerbitzua Sarien webgunearen bidez: <https://aprendizajeservicio.com/>

#### **5. Zeintzuk dira sariak?**

##### **1. Ohitura osasungarriak sustatzeko eta gizentasunaren prebentziorako Saria**

Osasun komunitarioko ekimenak edo proiektuak sustatzen dituzten proiektuei zuzenduta dago, hala nola elikadura osasungarria eta haurren obesitatearen aurkako borroka, jarduera fisikoa sustatzea, sedentarismoaren aurkako ekintzak, arrisku-jokabideen prebentzioa, istripuen prebentzioa, aho-osasuna eta ikusmen-osasuna...

**DKV Seguros**-ek ematen du sari hau, 1.500 eurokoa.

##### **2. Osasunaren eta ingurumenaren Saria**

Herritarren osasunean eragiten duten sentsibilizazioa eta ingurumenaren aldeko ekintzak sustatzen dituzten proiektuei zuzenduta dago, hala nola kutsadurari, alergiari, edateko uraren kalitateari, biodibertsitatearen degradazioari, izurriteen kontrolari, hondakin plastikoaren kutsadurari, naturaguneen erabilera terapeutikoei eta herritarrak hondamendien, epidemien eta larrialdien aurrean kontzientziazteari.

**DKV Seguros**-ek ematen du sari hau, 1.500 eurokoa.

##### **3. Odola eta ehunak ematearen aldeko Saria**

Ospitaleekin, odol-bankuekin, emaile-elkartekin edo osasun-arloko beste elkarte, erakunde eta erakunde batzuekin lankidetzan, odol-emate eta odol-emaile berriak lortzeko herritarren kanpainak edo helduak sentsibilizatzeko bestelako ekimenak sustatzen dituzten proiektuetara zuzenduta dago.

**DKV Seguros**-ek ematen du sari hau, 1.500 eurokoa.

#### **4. Elkartasunaren eta giza eskubideen aldeko Sarria**

Gizarte-garapena sustatzen duten proiektuei zuzenduta dago, herritarrak sentsibilizatuz eta ekintza solidarioak eginez pobrezari, gizarte-bazterkeriari, desgaitasunei, bakardadeari, diskriminazioari, langabeziari, askatasunik gabeko pertsonen gizarteratzeari, goseari, gorrotoaren eta xenofobiaren kulturari eta, oro har, herritar kalteberei laguntzeko. Aurten, DANAK eragindako biztanleriari lotutako proiektu solidarioak baloratuko dira.

**La Caixa Fundazioak** ematen du sari hau, 1.500 eurokoa.

#### **5. Gizarte-entitateen Ikaskuntza eta Zerbitzu Sarria**

Gizarte-erakundeek (asistentzialak, kulturalak, gizalegezkoak, elkar laguntzekoak, ambientalak, kirolekoak...) eskola-egutegian edo oporretan bultzatutako proiektuei zuzenduta dago. Proiektu horiek gizarte-garapena sustatzen dute, pobrezari, gizarte-bazterkeriari, desgaitasunei, bakardadeari, diskriminazioari, langabeziari, askatasunik gabeko pertsonen gizarteratzeari, goseari, gorrotoaren kulturari eta Ingurumena, osasuna eta, oro har, biztanleriari laguntzea. Aurten, DANAK eragindako biztanleriari lotutako proiektu solidarioak baloratuko dira.

**La Caixa Fundazioak** ematen du sari hau, 1.500 eurokoa.

#### **6. Adineko pertsoneri laguntzeko Sarria**

Pertsona nagusiekiko babesa eta elkartasuna sustatzen duten proiektuei zuzenduta dago, isolamendua hausteko eta belaunaldien arteko loturak ezartzeko, beste kolektibo batzuekiko izaera ludiko, artistiko, sortzaile edo solidarioko ekintza bateratuen bidez; estimulazio kognitiboaren bidez; eguneroko bizitzan laguntzearen bidez; memoria biografikoa berreskuratzearen bidez...

**La Caixa Fundazioak** ematen du sari hau, 1.500 eurokoa.

#### **7. Artearen bidezko Ikaskuntza-Zerbitzua Sarria**

Gazteek (DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa mailetakoe) bultzatutako proiektuak dira, guztien ongira bideratutako interes sozialeko edozein arlotan eragiten dutenak, arteak erabiliz (plastikoak, ikusizkoak, musikalak, eszenikoak...), biztanleen bizi-kalitatea eta ongizate emozionala sustatzeko.

**Princesa de Girona Fundazioak** babesten du sari hori, eta mugikortasunerako laguntza du, Fundazioak antolatzen dituen 2025 Talentuaren Tourreko topaketetan parte hartzeko. Ikastetxean Amplificarte Kontzertuetako bat kontatzeko aukera ematen du. Ikuskizun horiek artista gazte berrien lekukotasuna eta helburua konbinatzen dituzte, esperientziak irauten duen 50 minutuetako abesti eta ikaskuntza emozionalekin.

## **8. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Ikaskuntza-Zerbitzu Saria**

Edozein gaitako proiektuei zuzenduta dago (osasuna, ingurumena, adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak, haurrei laguntzea...), eta proiektu horien protagonistak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak dira, eta eginkizun erabakigarria izan dute. Taldearen berezko proiektua edo Haur eta Lehen hezkuntzako proiektua izan daiteke, beste proiektu orokor baten esparruan, non neska-mutil nagusiek ere esku hartzen duten.

**Iberoamerikako Estaturen Erakundeak** ematen du sari hau, 1500 eurokoa.

## **9. Irakurzaletasuna sustatzeko Saria**

Edozein motatako estrategien bidez irakurketa sustatzea helburu duten proiektuei zuzenduta dago: irakurzaletasuna babestea, eskolako liburutegia edo auzoko liburutegia sustatzea edo sortzea, irakurketa kolektibo kalteberengana edo ospitaleratutako pertsonengana hurbiltzea, irakurketa zabaltzeko kanpainak, herri-ipuak eta -kondairekin lotutako jolas-jarduerak... Bereziki baloratuko dira pertsona behartsuen sustaketa eta zainketan, adineko pertsonen zainketan, irakurketa zainketan eta autozainketan zentratutakoak.

**Edelvives Fundazioak** ematen du sari hau, 1500 eurokoa.

## **10. Garapenerako lankidetzaren Saria**

Nazioarteko elkartasuneko, ezagutzak trukatzeko edo garapen-bidean dauden herrialdeetako pertsonen edo kolektiboekin laguntzeko proiektuetara zuzenduta dago, justizia sozialaren ikuspegitik: sentsibilizazio-kanpainak antolatzea eta funtsak lortzea, edo ezagutza eta trebetasun profesionalak aplikatzea eremuan.

**Educo**-k ematen du sari hau, 1500 eurokoa.

## **11. Parte-hartzea eta jabetasun Saria**

Edozein gaitako proiektuetara zuzenduta dago (osasuna, ingurumena, adinekoak, ezgaitasunak dituzten pertsonak, giza eskubideen defentsa, haurrei laguntzea...), horietan nesken, mutilen eta nerabeen parte-hartzea handia eta nabarmena izan behar da.

**Educo**-k ematen du sari hau, 1500 eurokoa.

## **12. Ingurumen heziketaren Saria**

Ingurumena hobetzeko, natura zaintzeko eta biodibertsitatea berreskuratzeko kontzientzia hartzea, prestakuntza eta konpromisoa sustatzen duten proiektuetara zuzenduta dago. Horretarako, sentsibilizazio-kanpainak, inguruko balio ekologikoen ezagutza sustatzeko ekintzak, hurbileko espazioak

zaindu edo berreskuratzeko ekimenak eta ingurumenaren gaineko eragina murrizten laguntzen duten proiektuak egin behar dira.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Ingurumen Hezkuntzako Zentro Nazionalak babesten du sari hori, eta hiru gau eta lau eguneko egonaldia du CENEAMek kudeatzen dituen ingurumen-hezkuntzako ekipamenduetako batean, talde/klase bateko haur edo gazteentzat eta haien hezitzaileentzat.

Edozein arrazoirengatik egonaldi hori ezinezkoa balitz, saria ingurumenari buruzko haur eta gazteentzako webinario bat izango litzateke.

### **13. Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzeko Saria**

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromisoa sustatzen duten proiektuei zuzenduta dago, eta emakumeen eta gizonen arteko eta mutilen eta nesken arteko tratua ona, errespetua eta lankidetzaz azpimarratzen dituzte, aldaketarako eragile bihurtuz. Hainbat alderdi lantzen dituzten proiektuak bilatzen dira, hala nola aukera-berdintasuna, generoagatiko diskriminaziorik eza, kontzientzia hartzea, emakumeen eta nesken aurkako indarkeriak prebenitzea eta desagerraraztea, eta baliabideak eskuratu eta kontrolatzean eta horiek garatzeko aukeretan sexuen artean dauden aldeak identifikatzea.

**Ana Bella Fundazioak** ematen du sari hau, 1500 eurokoa

### **14. APS proiektuen sendotze eta eraginaren Saria**

Ikastetxeak edo gizarte-erakundeak denboran zehar modu iraunkorrean garatu dituen, erreferente gisa finkatu diren eta lurraldean begi-bistako eragina izan duten edozein gaitako proiektuetara zuzenduta dago (osasuna, ingurumena, adineko pertsonak, ezgaitasunak dituzten pertsonak, giza eskubideen defentsa, haurrei laguntzea...).

**Mullor Fundazioak** ematen du sari hau, 1500 eurokoa.

### **15. Inklusio Saria**

Edozein gaitako proiektuetara zuzenduta dago, desgaitasunen bat duten neska-mutilak komunitateari emandako zerbitzuaren protagonista izan badira edo protagonismoa beste kolektibo batzuekin partekatu badute. Bereziki bilatzen diren proiektuen ikuspegia ez da asistentziala, elkarrekiko ekarpena baizik: desgaitasuna duten pertsonak beren esperientzia eta balioa ematen laguntzen dute, eta komunitateak aberastu gisa jasotzen du partaidetza hori.

**Plena Inclusión**-ek ematen du sari hau, 1500 eurokoa.

### **16. Aniztasuna eta bizikidetzaren Saria**

2030 Agendaren esparruan (osasuna, ingurumena, hezkuntza-laguntza...) GJH-ei lotutako edozein gairi buruzko proiektuetara zuzenduta dago. Proiektu horiek herritarren sentsibilizazioa sustatzen dute hein jatorria, etnia, erlijioa eta genero-identitatea edozein direla ere, giza eskubideen defentsan eta bizikidetzaren sustapenean arreta jarritz, eta pertsona kalteberen ahalduntzea ere bultzatzen dutenak, batez ere migrazio-jatorrikoak, gure gizartean parte-hartzaile aktibo diren aldetik.

**Yehudi Menuhim Fundazioak** ematen du sari hau, 1500 eurokoa.

### **17. Jokoaren bidezko Ikaskuntza-Zerbitzua Saria**

Edozein gairi buruzko proiektuei zuzendua (osasuna, ingurumena, adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak, haurrei laguntzea...), jolasa hezkuntza-tresna gisa erabiltzen dutenei (adibidez: haur txikiekien jolasak dinamizatzea; adineko pertsonen estimulazio kognitiborako memoria-jolasak; desgaitasunen bat duten pertsonen zuzendutako joko psikomotorrak, etab.) eskola-egutegian edo eskolaz kanpoko denboran, udalekuetan edo oporretako kanpamenduetan.

Sari hau **Esplai La Floridak** ematen du eta 1.500 eurokoa da.

### **18. Lanbide Heziketako Ikaskuntza-Zerbitzuko proiektuen kalitatearen Saria**

Lanbide Heziketako etapan (oinarrizkoa, ertaina eta goi-mailakoa) egiten diren ikaskuntza-zerbitzu proiektuetara zuzenduta dago, eta egindako zerbitzuaren kalitatean eta eraginkortasunean jartzen dute arreta, bai eta curriculumean garatu beharreko konpetentzien ikaskuntzan eta etorkizuneko profesionalen beren ingurunean izango duten eraginean ere. Garrantzi berezia emango zaie Garapen Jasangarriko Helburuekin eta garapen ekonomiko iraunkorreko eredu berriekin lotutako proiektuei.

Sari hau **Andaluziako Gizarte Ekonomiako Ikastetxeen Elkarteak** babesten du eta 1500 eurokoa da.

### **19. Ikaskuntza-Zerbitzua hezkuntza-proiektu globalean sartzeko Saria**

Beren hezkuntza- edo gizarte-proiektuaren barruan ikaskuntza/zerbitzua esplizituki eta intentsitate handiz jarri duten ikastetxeei eta gizarte-erakundeei zuzenduta dago; hala, egiten dituzten jarduerak guztiek ikuspegi hori dute, eta ikastetxea edo gizarte-erakundea erreferentzia da beren lurraldeko ikaskuntza-zerbitzuan. Proiektu hauek B ereduaren barruan aurkezten dira.

Sari hau **Spainiak** **Ikaskuntza-Zerbitzu Sareak** babesten du eta 1500 eurokoa da.

### **20. Berrikuntza Saria Ikaskuntza-Zerbitzuko proiektuetan**

Edozein gaitako proiektuei zuzendua (osasuna, ingurumena, adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak, giza eskubideen defentsa, haurrei laguntzea...), baldin eta hezkuntza ekintza berritzaileak sustatzen diren edo metodologia berritzaileen bidez lan egiten den IKT edo horrelako beste edozein metodologia.

Sari hau **Absotec-ek** babesten du eta 1500 eurokoa da.

## 21. Ciudad Real hiriko Ikaskuntza-Zerbitzu Saria

Ciudad Realeko ikastetxeek edo gizarte-erakundeek bultzatutako edozein gairi buruzko proiektuetara zuzendua (osasuna, ingurumena, adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak, giza eskubideen defentsa, haurrei laguntzea...).

**Ciudad Realeko Udalak** babesten du sari hau eta 1500 euroko saria du.

## 6. Sariak dakartzaten konpromisoak

Saria onartzeak saritutako ikastetxe eta gizarte-erakundeek konpromiso hauek hartzea dakar:

- a) Ikaskuntza-zerbitzuaren **XVIII. Ikaskuntza eta Zerbitzuko Estatu-topaketara** joatea (ikus 7. atala), gutxienez lau ordezkari (bi irakasle eta bi ikasle). Topaketara joatea errazteko, ikastetxeak edo erakundeak beka bat eskuratu ahal izango du eta, gainera, sariaren diru-zuzkiduraren zati bat erabili ahal izango du.
- b) Sariaren zenbatekoa (diru-sarien kasuan) aurkeztutako esperientzia garatzeko eta zabaltzeko erabili beharko da, edo beste bat abian jartzeko. Esperientzia ikastetxe edo gizarte-erakunde batek baino gehiagok aurkeztu badute, inplikaturako alderdiek saria nola banatu adostu beharko dute, eta epaimahaiak jakintzat emango du esperientzia aurkeztu baino lehen hartu dela erabaki hori.
- c) Saritutako ikastetxeek eta gizarte-erakundeek Topaketan lagundu beharko dute, proiektua aurkezteko ikus-elementuak emanez. Elementuok aurrerago zehaztuko dira.

## 7. Non eta noiz banatuko dira sariak?

Sariak **2025ko abenduaren 12an** (ostirala) banatuko dira, **Ciudad Realko Udalak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak, Gaztela-Mantxako Ikaskuntza-Zerbitzu sareak eta Espainiako Ikaskuntza-Zerbitzu Sareak antolatutako Ikaskuntza-Zerbitzuko XVIII. Topaketa estatalean, Educoren laguntzarekin.**

**Ikaskuntza-Zerbitzua Sarien** webgunean iragarriko da, 2025ko azaroan, zer proiektuk lortu duten saria:

<https://aprendizajeservicio.com/>

## 8. Nork ebaluatuko ditu proiektuak?

Espainiako Ikaskuntza-Zerbitzua Sareko, Educoko, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak eta enpresa eta erakunde kolaboratzaileetako kideek osatuko dute epaimahaia. Proiektuen ebaluazioan 90 adituk baino gehiagok hartuko dute parte.

## 9. Oinarrien onarpena

2025ko Ikaskuntza-Zerbitzua Sarietan parte hartzen duten ikastetxeek eta gizarte-erakundeek deialdi honetako oinarriak onartu beharko dituzte, baita epaimahaiaren ebazpenak ere. **Instantzia bakarrean hartuko ditu erabakiak, eta ezin ezingo da haien aurkako berrazterketa- eta apelazio-errekurtsorik aurkeztu.**

Epaimahaiaren erabakiaren berri izan ondoren, deialdi honetan aurkeztu diren proiektu guztiak, sarituak nahiz ez sarituak, esperientzien bankuan sartu ahal izango dira, eta deialdia egiten duten erakundeek argitaratu egin ahal izango dituzte (webguneetan, agirietan, ikus-entzunezko materialetan, material pedagogikoetan, paperean edo euskarri digitalean egindako hezkuntza proiektuetan, sare sozialetan, etab.) Espainian ikaskuntza-zerbitzuaren arloan egiten diren jarduera egokiei merezi duten zabalkundea emateko asmoz.



Premios  
**Aprendizaje  
& Servicio**

## Online izena emateko orria

---

Orri hori eskuragarri dago <https://aprendizajeservicio.com/> webgunean eta hari erantsi beharko zaio proiektuaren dokumentua, bideorako esteka duena.

# 1. Eranskina. A eredua: Ikaskuntza-Zerbitzu proiektuak

---

## Eskakizunak

- a) Deialdian parte hartzeko, proiektua deskribatzen duen agiria eta parte hartzeko eskabide-orrria aurkeztu beharko dira, eta biak formatu digitalean egongo dira. Horrez gain, esperientziaren bideoa ere aurkeztu beharko da.
- b) Edonola ere, abian jarritako proiektua izan behar du eta ez oraindik zehaztu gabe dagoen ideia.
- c) Agiriak **15 orrialde eta 7500 hitz izango ditu gehienez**, azalaz gain.
- d) Eskemak, argazkiak eta era guztietako ilustrazioak txertatu ahal izango dira, baldin eta orrialdeen eta karaktereen kopurua gainditzen ez badute.
- e) Genero-berdintasuna errespetatzen duen aurkezpen zaindua eta hizkera hartuko dira kontuan.
- f) Agirian, ondoren zehaztutako atalak azaldu beharko dira ezinbestean:
  - 1. Proiektuaren laburpena eta bideoaren esteka.
  - 2. Proiektuaren xede den inguruko arazo edo premia soziala.
  - 3. Zerbitzuaren deskribapena eta zer ataza dituen
  - 4. Garapen Jasangarriko Helburuekiko lotura
  - 5. Parte hartzen duten haur eta gazteen hezkuntza-beharrizanak
  - 6. Jorratzen diren hezkuntza-helburuak eta gaitasunak.
  - 7. Ikaskuntza-jarduerak.
  - 8. Egutegia.
  - 9. Haur eta gazteen partaidetza.
  - 10. Sareko lana.
  - 11. Gauzatzea.
  - 12. Zabalkundea.
  - 13. Behar diren baliabideak.
  - 14. Ebaluazioa.
  - 15. Bideoa

## Proiektua idazteko orientabideak

### 1. Proiektuaren sinopsia, bideoaren esteka eta zer saritara aurkezten den

#### Proiektuaren sinopsia

Proiektuaren sarrera labur eta argi bat izan behar du, **150 hitz baino gehiagokoa ez** dena. Bertan, **laburki** deskribatuko dira landu nahi den arazoa, neska-mutilek egindako zerbitzua eta hari lotutako ikaskuntzak, eta sareko lana aipatuko da.

Erraz ulertzeko moduko sinopsia baloratuko da, zerbitzua eta ikaskuntza azaletik azalduko dituen eta proiektuaren laburpen ona izango dena.

## Adibidea

Neska-mutil talde batek, Indiako hegoaldeko leganardunekin zerikusia duten haurren bazterketa-egoera ikertu ondoren, «**JALEkin korrika**» antolatzen eta gauzatzen du. Lasterketa solidario **horren helburua da GKE honek Pondycherryn (India) haurren gizarte-bazterketa horren aurka borrokatzeko antolatzen dituen urteko olinpiadak babesteko funtsak biltzea**. Bestalde, Pondycherry-ko neska-mutilek kabaddia erakutsiko diete ikasleei, Indiako kirol-joko ezagunenetako bat. Bigarren Hezkuntzako beste maila batzuetako neska-mutilek ere parte hartzen dute lasterketan.

### b) Bideoaren esteka

Atal honetan, proiektuarekin batera doan bideoaren esteka adierazi behar da.

### c) Proiektua aurkezten den sariak

Hiru sari bakarrik aipatu behar dira, lehentasun-hurrenkeraren arabera (aukerek bat etorri behar dute izena emateko inprimakian adierazitakoekin).

B eredura aurkezten diren ikastetxe eta gizarte entitateek aukera hau besterik ez dute adierazi behar: "Ikaskuntza-Zerbitzua hezkuntza-proiektu globalean sartzeko Saria"

## Adibidea

Proiektu hau sari hauetara aurkezten da

- 1) Lehenik eta behin, Garapenerako lankidetzeta saria.
- 2) Bigarrenik, Elkartasunaren eta giza eskubideen saria.
- 3) Hirugarrenik, Parte-hartze saria.

## 2. Proiektuaren xede den arazo soziala edo ingurunearen premia

Atal honetan labur deskribatu behar da **ingurunearen** (kultura, laguntza, hezkuntza, ingurumena, osasuna, giza eskubideak...) zer erronka, arazo, gabezia edo premia landu duten proiektuan parte hartu duten haur eta gazteek.

Premia soziala jakina eta garrantzitsua izatea balioetsiko da, adinaren eta heldutasun-mailaren arabera.

## Adibideak

**Garatu daitezkeen ideien adibideak:** hirietako espazioen degradazioa, adinekoen bakartasuna, kolektibo jakin batzuen bazterketa, maskotak abandonatzea eta animaliei tratu txarrak ematea, herrian obesitate-ehuneko handia egotea...

### 3. Zerbitzuaren eta zereginen deskribapena

Atal honetan, zerbitzuaren helburu zehatza azaldu behar da, eta labur-labur deskribatu zein izan ziren neska-mutilek egin zituzten **zeregin nagusiak** eta ingurunean zer eragin izan zuten, eta, ahal den neurrian, lortu nahi ziren **emaitza egiaztagarriak** aipatu behar dira, dira, baita eragin hori nola ikus daitekeen ere.

Zerbitzuak problematikari dagokionez aldaketa argiak eragitea edo denborarekin aldaketak eragiteko gaitasuna edukitzea balioetsiko da.

#### Garatu daitezkeen ideien adibideak

Zerbitzua auzoko parkea garbitzeko kanpaina prestatu, antolatu eta martxan jartzea izan zen, parkea guztiz utzita baitzegoen, 1.500 biztanleko auzo batean bakarra izanik ere. Horretarako, neska-mutilek kartelak egin zituzten saltokietan jartzeko; kanpaina zabaltzeko bideo bat grabatu zuten sare sozialetara igotzeko; auzo-elkartearekin eta merkatariekin batzartu ziren kanpaina aurkezteko eta laguntza eskatzeko; Udalari garbiketarako materiala eta laguntza logistikoa eskatu zizkieten...

### 4. Garapen Jasangarriko Helburuekiko lotura

Atal honetan behar bezala **identifikatu** behar dira Nazio Batuen 2030 Agendako zer GJH dauden lotuta ikaskuntza-zerbitzuko proiektuari.

GJH bakoitzari lotutako **xedeak** adieraztea balioetsiko da, edo, hori ezinezkoa denean, azalpen arrazoitu bat ematea.

Biztanleriaren garapen turistikorako proiektu baten adibidea

Neska-mutilek hainbat ekintza egin dituzte herriko produktuak eta kultura-ondarea herrira datozenei ezagutzera emateko.

4. GJH: Kalitatezko hezkuntza. 4.7. xedearekin loturik dago: Garapen jasangarrirako hezkuntza; izan ere...

8. GJH: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa. 8.9. xedearekin loturik dago: Turismo jasangarria; izan ere...

### 5. Parte hartzen duten haur eta gazteen hezkuntza-premiak

Atal honetan, proiektuan parte hartzen duen taldearen aukerak eta mugak deskribatu behar dira: interesak eta motibazioak, maila akademikoa edo hezkuntza-premia bereziak, taldearen dinamika, gatazkak kudeatzeko modua, jarrerak eta balioak, ingurune eta, oro har, gizarteko arazoekiko sentsibilitatea, etab.

Zailtasun handienak dituzten neska-mutilek bultzatutako proiektuak balioetsiko dira.

**Garatu daitezkeen ideien adibidea:** bizikidetza-gatazkak ikasgelan; neska-mutilek adinekoengana dituzten errespetu gutxiko jarrerak; oinarriko kompetentziak lantzeko beharra, hala nola hizkuntza-komunikazioa, matematikarako kompetentzia, zientzia, ekologia...; taldean lan egiteko trebetasunak landuta ez edukitzea, komunitatearen arazoak gutxiestea edo ez ulertzea...

## 6. Zer hezkuntza-helburu eta kompetentzia lantzen diren

Atal honetan argi eta garbi aurkeztu behar dira hezkuntza-helburuak edo kompetentziak, lehenengo irakurraldian ulertzeko moduan.

Balioetsi egingo da helburuak gutxi izatea eta ondo formulatuta egotea; neska-mutilen mailarako esanguratsuak eta egokiak izatea, eta ikaskuntzen, zerbitzuaren eta bien arteko errefortzuaren arteko lotura agerikoa eta sendoa izatea.

### **Adibidea: Kontsumo arduratsua, bidezkoa eta jasangarria sustatzeko Batxilergoko 1. Mailako neska-mutilek bultzatutako proiektu batean:**


#### **Hezkuntza-helburu orokorrak**

1. Aberastasunaren mundu-mailako banaketa desorekatua ulertzea, eta nazioarteko harremanak arautzen dituzten egitura politiko, sozial eta ekonomikoen berri izatea.
2. Etorrizuneko belaunaldiakiko elkartasuna erakustea eta planetako baliabideak zaintzeko erantzukizuna azpimarratzea.
3. Oinarriko kompetentziak indartzea, eskaera konplexuei erantzuteko eta proiektuak eskatzen dituen zereginak gauzatzeko.

| <b>Helburu kurrikularrak</b>   | <b>Kompetentziak</b>  | <b>Zerbitzuarekiko lotura</b>   |
|--|---|---|
| <p><i>Mundu Garaikidearen Historia</i></p> <p>Europaren kolonizazio- eta deskolonizazio-prozesu historikoak ezagutzea, eta gaur egungo desberdintasun ekonomikoen jatorritzat identifikatzea.</p> <p><i>Euskara eta Literatura</i></p> <p>Ahoz eta idatziz adieraztea hainbat erregistrotan, egoera eta hartzailea kontuan hartuz.</p> | <p><i>Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako kompetentzia</i></p> <p>Kultura-aniztasunerako eskubidea eta kulturen eta gizartearen arteko elkarriketa errespetatzea.</p> <p><i>Ekintzailtza-kompetentzia</i></p> <p>Ekimena, interesa, proaktibitatea eta berrikuntza erakustea.</p> <p><i>Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia</i></p> | <p><i>Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatzeko kanpaina</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Hainbat ikasmilaren arteko eztabaidak antolatzea.</li> <li>▪ Mahai-inguru bat antolatzea, adituen parte-hartzearekin.</li> </ul> <p><i>Eskolan bidezko merkataritzako denda bat sortzea eta mantentzea</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Txanda boluntarioak ezartzea.</li> <li>▪ Eskaeren kudeaketa, biltegia eta kontabilitatea.</li> </ul> <p><i>Elikagaiak biltzea, etxerik gabeko pertsonen laguntzen dien tokiko elkarte batekin lankidetzan</i></p> |



|  |   |  |
|--|---|--|
| <p>Arrazoibide koherenteak erabiltzea diskurtsoetan.</p> | <p>Hainbat komunikazio-egoeratan ahoz adieraztea.</p> <p>Arretaz eta interesez entzutea, erantzuna kontrolatuz eta egoeraren eskakizunetara egokituz.</p> |  |
|--|---|--|



## 7. Ikaskuntza-jarduerak

Puntu honetan, labor-labor deskribatu behar dira zerbitzuari zuzenean lotutako **ikaskuntza-jarduerak nagusiak**. Kasu batzuetan, ikasgelako jarduerak izango dira, eta, beste batzuetan, hezkuntza-taldekoak, tokian bertan egindako ikerketa-jarduerak edo landa-lana barne.

Landu nahi den arazoari, horren kausei eta ondorioei buruzko **hausnarketa-jarduerak** balioetsiko dira, bai eta komunitateari ematen zaion zerbitzuak eta bereganatuz doazen ikaskuntza pertsonalek parte-hartzaileen bizitzarako duten erabilgarritasunari buruzkoak ere.

**Garatu daitezkeen ideien adibidea:** parke publiko baten beharrianak ikertzea eta hautematea, urmael bat lehengoratzeko landare espezie egokienak aztertzea, desgaitasuna duten pertsonen bazterketari buruzko gogoeta egitea, obesitatearen kausei eta ondorioei buruzko mapa mental bat egitea, proiektua garatzeko banakako egunerokoa, egingo diren edo egin diren ikasketzei buruzko eztabaida...

## 8. Egutegia

Atal honetan, proiektuaren garapenaren denbora-**eskema** bat aurkeztu behar da, eta, gainera, faseen **azalpen labor** bat, ikasketzarekin nahiz zerbitzuarekin lotutako alderdiak jasoko dituena.

Balioetsi egingo da aurreko ataletan deskribatu dena ez errepikatzea, baizik eta sekuentzia kronologikoa hedatzea, proiektua egiteko **prozesua** hobeto ulertu ahal izateko.

### **Adibidea: Mendebaldeko Saharako lankidetzaren proiektu batean.**

#### 1.Fasea *Sentsibilizazioa (2023ko urria)*

Bideo eta galdetegiekin, neska-mutilek saharar errefuxiatuen arazoa ezagutu eta horretan sakondu zuten. Beste sentsibilizazio-jarduerak batzuk Dar al-Karamaren hitzaldiak (abenduak 21) izan ziren, «Hamelin proiektua: edozertarako gai» gaiari buruzkoak; gure irakasleek kanpamenduetan egindako egonaldiaren azalpenak, eta Sultana Jaya ekintzailearen hitzaldia.

#### 2.Fasea *Irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak (2023ko azarotik 2024ko maiatzera)*

Neska-mutilek saharar herriarekiko duten sentsibilizazioan eta enpatian sakontzeko dira, curriculum-edukiei dagokienez, eta zerbitzuan egiten duten ekarpena gauzatzeko oinarriak jartzeko.

#### 3.Fasea *Zerbitzua: laguntza materialaren bilketan, funtsen bilketan eta gatazkaren zabalkunde publikoan (hirugarren hiruileakoan zentratua)*

Neska-mutilek produktuak eta dirua bildu zituzten kanpamenduetako beharrizanak asetzeko, zerbitzuko dokumentuak prestatu zituzten eta apirileko eztabaida-jardunaldia antolatu zuten edo hartan parte hartu zuten.

4.Fasea *Emaitzak ezagutaraztea eta ospatzea*

Mendebaldeko Sahararen aldeko Elkartasun Jaialdia dela eta, apirila eta maiatza bitartean tokiko zenbait komunikabidetara jo genuen, eta prentsa-oharrak bidali genizkien gainerakoei, proiektuaren edizio honi amaiera emateko ospakizuna ezagutarazteko.

## 9. Haur eta gazteen parte-hartzea

Atal honetan deskribatu behar da zein izango den neska-mutilen protagonismoa adinaren eta egoeraren arabera, nola erraztu den eurek proiektua antolatzea, eta nola bultzatu den elkartasuneko eta ikaskuntzako ekintza diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea.

Parte hartzeko metodologiaren erabilera, talde-lana eta lankidetzaren balioetsiko dira; proiektuaren definizioan eta faseen garapenean parte hartzen duten neska-mutilen inplikazioa orekatua, bizia eta berdintasuneko.

**Garatu daitezkeen ideien adibidea:** Taldeak nola erabaki zuten proiektua edo nola beretu zuten, zereginen banaketa eta gauzatzearen kontrola, proiektuaren aurrerapena baloratzeko batzarrak; ekintzen eta emaitzen aurkezpena...

## 10. Sareko lana

Atal honetan, proiektuan parte hartzen duten erakundearen arteko sareko lana deskribatu behar da ikuspegi komunitariotik (ikastetxeen, gizarte-erakundeen eta Administrazioaren lankidetzaren) eta elkarrekotasunetik (inplikaturako alderdi guztiak onuradun dira).

Gizarte-entitateak edo -entitateek, inplikaturako erakundeek edo hartzailerek proposamena diseinatzean eta gauzatzean inplikazio handia izatea balioetsiko da.

Garatzeko adibidea

Lehen Hezkuntzako ikastetxe batek eta adinekoentzako egoitza hurbil batek ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bat diseinatu dute, bi erakundearen prestakuntza-programazioetatik abiatuta. Helburuak bateratu dituzte, jarduerak elkarrekin diseinatu eta programatu dituzte eta hori guztia elkarrekin erlazionatuta ebaluatu dute. Gainera, Gurasoen Elkartearen eta herriko udalaren laguntza ere badute ospakizunaren azken ekitaldirako; izan ere, udalak udal-lokalak utzi dizkie aparteko jarduerak batzuetarako, eta gastuen zati bat finantziatu du.

## 11. Osparkizuna

Puntu honetan deskribatu behar da nola erakutsi edo gauzatu zen proiektuaren emaitza: festa bat egin zen, haurrak edo gazteak eta erakunde parte-hartzaileak aintzatesteko ekitaldi bat...

Osparkizuna proiektuan parte hartu duten gainerako eragileekin batera egiten den baloratuko da (erakundeak, onuradunak...).

**Garatu daitezkeen ideien adibidea:** jai-ekitaldi bat, gonbidapen bat, aintzatespen-diploma bat eman den, agintariren batek parte hartu duen...

## 12. Zabalkuntza

Atal honetan, proiektua ingurunean eta familietan ezagutarazteko zein bitarteko eta estrategia erabili ziren azaldu behar da, baita herrian eta hedabideetan izan dituen ondorioak ere.

Zabalkundean ikaskuntza-zerbitzua berariaz aipatzen den baloratuko da.

**Garatu daitezkeen ideien adibidea:** webgunea, informazio-bilerak, sare sozialak, prentsa, diptikoak, irratia, telebista...

## 13. Beharrezko baliabideak

Atal honetan, ahal den neurrian, proiektu honetan mobilizatu diren baliabide espezifikoak **laburbildu** behar dira (materialak, ekonomikoak, giza baliabideak...), bai ikastetxearenak, bai parte hartu duten gizarte-erakundearenak.

Ikastetxekoez edo erakundekoez gain beste baliabiderik lortu den baloratuko da.

**Garatu daitezkeen ideien adibidea:** joan-etorriak, material suntsikorrak, profesionalen aparteko dedikazioa eta boluntariora...

## 14. Ebaluazioa

Atal honetan, proiektu osoaren eta planteatutako hezkuntza-helburuen betetze-mailaren ebaluazioa aurkeztuko da.

Azken balantze bat baloratuko da, honako hauek jasoko dituenak: parte-hartzaileen iritzia, proiektuaren indarguneak, hobetzeko elementu kritikoak, lortutako emaitza hautemangarriak, iraunkortasunari buruzko hausnarketa, eta, gainera, adieraziko da ea proiektuak denboran iraun nahi duen, ea proiektuan gizarte-erakundearekin edo hartzailerekin jarraitzeko konpromisorik dagoen, ebaluazio-tresna zehatzen ekarpena...

**Garatu beharreko ideien adibideak:** ebaluazio-plan baten eskema, parte hartzen duten neska-mutilen esperientzia pertsonalen ekarpena, erakunde edo pertsona hartzaileen testigantzak, ebaluazio-tresnak, galdetegiak, erabilitako errubrikak...

## 15. Bideoa

Ikaskuntza-zerbitzu proiektuaren deskripzio-dokumentuarekin batera doan 2 minutuko bideoaren helburua proiektua ilustratzea da, bereziki, proiektua praktikan jartzea; parte-hartzaileek nabarmendu nahi dituzten alderdiak jasotzea, eta proiektu zehatza eta, oro har, ikaskuntza-zerbitzua hedatzen laguntzea.

Proiektua argi eta garbi ilustratzeko helburuz, protagonista diren neska-mutilen testigantzak jasotzen dituzten bideoak baloratuko dira, bai eta zerbitzuaren hartzaileenak ere, halakorik balego.

Proiektua irabaziz gero, sarien banaketan proiektatuko da bideoa.

### Baldintzak

1. Bideo bakarra aurkeztuko da aurkeztutako ikaskuntza-zerbitzu proiektu bakoitzeko.
2. Iraupena ez da **2 minututik** gorakoa izango.
3. Bideoak proiektua deskribatu behar du, eta eskubiderik gabeko irudiak eta soinu-bandak erabili behar dira.
4. Ez dira onartuko aurkeztutako proiektuaz bestelako gaiak jorratzen dituzten bideoak, publizitate-edukiak dituztenak edo ikaskuntza-zerbitzuaren pedagogia inspiratzen duten balio etikoen aurkakoak direnak.
5. Telebista-kanaletan zabaldutako erreportaje laburrak eta proiektuaren albisteak onartuko dira.
6. Bideoak Youtubera edo Vimeora igo behar dira soilik "sarbide publikoa" modalitatean, eta esteka sartu behar da deialdira aurkezten den proiektuaren dokumentuan.

## 16. Bideoa

Ikaskuntza-zerbitzu proiektua deskribatzen duen dokumentuarekin batera doan argazkiaren helburua proiektuaren irudia izatea eta proiektuaren sinbolo gisa balio izatea da. Erantsitako artxibo gisa erantsi beharko da.

## Legezko erantzukizunak

1. Proiektuaren arduradunek ziurtatu beharko dute bideoan agertzen diren pertsonen adostasuna dutela, bai eta adingabeen gurasoen edo legezko tutoreen adostasuna ere.<sup>2</sup>
2. **Ikaskuntza-Zerbitzuaren Espainiako Sarearen** eta **Educo-ren** ustez, deialdi honetan parte hartzen duten ikastetxeek eta gizarte-erakundeek baimen hori dute, familiek edo legezko tutoreek behar bezala sinatuta, eta, beraz, ez dute erantzukizunik onartuko.
3. Bideoen egileek **Creative Commons (by-nc-nd<sup>3</sup>)** lizentziari atxikitzea onartzen dute, eta, beraz, badakite lehiaketara bidaltzen dituzten lanak nahi duenak erabil ditzakeela, betiere iturria aipatuz gero (egilea, ikastetxea edo gizarte-erakundea eta data).
4. **Espainiako Ikaskuntza-Zerbitzu Sareak** eta **Educok** uko egiten diote aurkeztutako bideoen edukiarekin, jabetza intelektualaren, industrialaren edo irudiaren arloko ez-betetzeeekin eta parte-hartzaileek deialdi honen oinarriak partzialki betetzearekin lotutako legezko erantzukizunari. Egileak dira bideoaren eta haren edukien legezko erantzule bakarrak.
5. 5. Ekitaldia argitzeko eta zabaltzeko, **Espainiako Ikaskuntza-Zerbitzu Sareak** eta **Educok**, erakunde antolatzaile guztiekin lankidetzan, parte hartzen duten haurren eta helduen irudia eta ahotsa behar ditugu. Proiektu sarituek edo finalistek proiektuarekin zerikusia duten argazkietan agertzen diren adingabeko haur eta gazte guztien irudi-baimena izan beharko dute. 3. eranskinean dago bete beharreko irudi-baimena.

---

<sup>2</sup> Konstituzioaren 18.1 artikulua, Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak arautua; eta 18.4 artikulua, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak arautua.

<sup>3</sup> Aitorpena – Ez komertziala – Obra eratorririk gabe (by-nc-nd).

## 2. Eranskina. B eredua: Ikaskuntza-Zerbitzua proiektu globalean sartu duten ikastetxe edo gizarte-erakundeak

**ADI: Eredu hau IKZ ikastetxearen edo gizarte-erakundearen proiektu globalean sartzeko sarira aurkezten diren ikastetxeentzat edo gizarte-erakundeentzat soilik da.**

### Ikastetxearen edo erakundearen testuinguruaren azterketa

- Zer ezaugarri ditu zure zentro edo erakunde sozialak?
- Zein dira gizarte-zentroa edo -erakundeak kokatuta dagoen auzoaren edo herriaren ezaugarriak?
- Zer behar detektatzen dira ingurune horretan?
- Zer hezkuntza-premia hautematen dira, oro har, ikastetxea edo gizarte-erakundeak artatzen duten haur eta gazteen artean?

### Ikaskuntza-zerbitzuaren ibilbidea ikastetxean edo erakundearen

- Noiz eta zergatik hasi zen ikastetxea edo erakundeak ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak garatzen?
- Zer printzipioak eta balioak bideratzen dute ikastetxearen edo erakundearen aukera ikaskuntza-zerbitzura?
- Nola txertatu da ikaskuntza-zerbitzua ikastetxearen edo erakundearen proiektu globalean (prestakuntza, IHP, etab.)?

### GJHak ikastetxearen edo erakundearen hezkuntza-ikuspegian

- Zer toki dute Garapen Jasangarrirako Helburuek ikastetxearen edo erakundearen proiektu globalean?
- Lotzen al dira ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak GJHekin?

### Ikastetxeko sareko lana

- Zer beste ikastetxe, erakunde edo administrazio publikorekin lan egiten du ikastetxeak edo erakundeak ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak bultzatzeko?
- Nola dago bideratuta sareko lan hau (akordioak, hitzarmenak, aliantzak...)?

### Ikastetxearen edo erakundearen proiektuen mapa

Puntu honetan, eskematikoki aurkeztu nahi dira azken urtean ikastetxeko edo gizarte-erakundeak hezkuntza-maila, eremu edo arlo bakoitzean planteatu diren ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak.

### Iraunkortasuna eta etorkizunerako aukerak

- Nola ziurtatzen da garatzen diren ikaskuntza-zerbitzuko proiektuen jarraipena?
- Zein dira etorkizuneko aukerak zure ikastetxean edo gizarte-erakundean ikaskuntza-zerbitzua hobetzeko?

### Bideo-laburpena et argazkia

Puntu honetan, bideo labur argigarri bat aurkeztu nahi da: testigantzen bidez, proiektuen bidez edo zure ikastetxean edo gizarte-erakundean egindako ikaskuntza-zerbitzuaren alderdi esanguratsuenak adierazten dituen beste edozein edukiren bidez egin daiteke. Gehienez **2 minutu**. Honekin batera proiektuaren kalitate oneko argazki bat ere erantsi beharko da.

## 3. Eranskina: Irudia eta ahotsa erabiltzeko baimen-eredua

### Irudia eta ahotsa erabiltzeko baimena

Familia horiek:

Dakizuenez, **abenduaren 12an** banatuko dira “2024ko Ikaskuntza-Zerbitzu Sariak”, **Ciudad Realen**, Estatuko Ikaskuntza-Zerbitzu XVIII. Topaketaren barruan. Meridako Udalak, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioak, Extremadurako Ikaskuntza-Zerbitzu Taldeak eta Espainiako Ikaskuntza-Zerbitzu Sarea, Educo Fundazioaren laguntzarekin antolatu dute.

Ekitaldi hori ilustratzeko eta zabaltzeko, Educok, erakunde antolatzaile guztiakin lankidetzan, parte hartzen duten haurren eta helduen (aurrerantzean erakunde antolatzaileak) irudia eta ahotsa behar ditu.

Dokumentu honen helburua da:

- 14 urtetik beherako parte-hartzaileen gurasoei/tutoreei eta ikastetxeko 14 urtetik gorako parte-hartzaileei erakunde antolatzaileek irudia/ahotsa nola erabiliko duten jakinaraztea.
- Baimena eskatzea, erakunde antolatzaileei parte-hartzaileen irudia/ahotsa tratatzeko aukera emango dien oinarri juridiko gisa.

#### Parte-hartzailea 14 urte baino gazteagoa bada:

..... jaun/andrea, ..... NAN-arekin, .....-ren gurasoa/tutorea.

#### Parte-hartzailea 14 urte edo gehiago baditu:

..... jaun/andrea, ..... NAN-arekin, .....-ren gurasoa/tutorea.

Erakunde antolatzaileei **baimena ematen die** semearren/alabaren irudia/ahotsa edo nire irudia/ahotsa (parte-hartzaileak 14 urte edo gehiago baditu) tratatzeko, batez ere argazki edo bideoen bidez, ekitaldi horretako jardueren berri emateko, baliabide hauek erabiliz:

- Egunkariak, aldizkariak, irratiak eta telebistak
- Web guneak, sare sozialak eta Interneteko beste gune batzuk
- Informazio-liburuxkak eta bestelakoak

.....-n, uuuu/hh/ee

Sinatua:

Sinatua:

Parte-hartzailearen guraso/tutorea

14 urteko edo gehiagoko parte-hartzailea



## Datu pertsonalen babesa irudiaren/ahotsaren tratamenduan

|   |   |
|---|---|
| Nor da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?               | <b>Fundación Educación y Cooperación (“EDUCO”)</b><br>Helbidea: Guillem Tell kalea, 47, 08006 Barcelona<br>CIF: G60541554<br>Helbide elektronikoa: <a href="mailto:dataprotection@educ.org">dataprotection@educ.org</a>   |
| Zertarako erabiliko ditugu zure datu pertsonalak?                     | Ematen dizkiguzun datu pertsonalak erabiliko ditugu, “2024ko Ikaskuntza-Zerbitzua Sarien” banaketa kudeatu eta argitzeko.   |
| Zenbat denbora gordeko ditugu zure datu pertsonalak?                  | Emandako datu pertsonalak gehienez ere 5 urtez gordeko dira.  |
| Zer legitimazio dago zure datu pertsonalak tratatzeko?                | Zure datu pertsonalak tratatzeko legeko oinarria dokumentu honen bidez emandako adostasuna da.  |
| Zein hartzailei jakinaraz dakizkioke zure datu pertsonalak?           | Datu pertsonalak Meridako Udalari, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioari, Extremadurako Ikaskuntza-Zerbitzu Taldeari eta Espainiako Ikasketa-Zerbitzu Sareari bakarrik jakinaraziko zaizkio.  |
| Zein dira zure eskubideak zure datu pertsonalak ematen dizkiguzunean? | Datu pertsonalak eskuratzeko eskubidea erabiltzea eska daiteke, bai eta datu okerrak zuzentzea edo, hala badagokio, ezabatzea ere, datuak bildu ziren helburuetarako beharrezkoak ez direnean. Zure datuen tratamendua mugatzea, eramangarritasuna eta kontra egitea ere eska daiteke, egoera jakin batzuetan eta zure egoera partikularrekin lotutako arrazoiengatik.<br>Era berean, edozein unetan ezeztatu ahalko da baimena, entitate antolatzaileek orain arte egindako datu pertsonalen tratamenduan atzera eraginik izan gabe.<br>Aurretik aipatutako eskubideak erabili ahalko dira, indarra duen legeriaren baldintzetan aipatzen den moduan, entitate antolatzaileen helbide sozialean edo posta elektronikoz eskatuta. |

|  |  |
|--|--|
|  | <p>Erantzun egokirik lortzen ez baduzu, erreklamazio bat egin nahi baduzu edo eskubide horietako edozeini buruzko informazio gehiago nahi baduzu, jarri harremanetan Datuak Babesteko Espainiako Agentziarekin (<a href="http://www.aepd.es">www.aepd.es</a>).</p> |
|--|--|